

Funtsezko baliabideak:

Gure proiektua aurrera eraman ahal izateko beharko ditugun baliabideak azalduko ditugu. Horretarako, baliabide mota bakoitzaren sailkapen bat egin dugu:



Baliabide fisikoak

Baliabide fisikoen artean hurrengo hauek ageri dira:

- *Body & Balance bulegoa.* Bertan, adituek lan egiteko tokia izango dute eta gainera bezeroekin elkartzeko leku fisikoa izango da. Bulegoak hainbat eremuetan banatuko da. Lehenengo eremua bezero eta adituak elkartzeko diren gela izango da eta bi funtzio nagusi izango ditu: bezeroak adituekin bilerak izatea eta adituen arteko bilerak egitea. Hurrengo eremua, adituen banakako kontsultak egongo dira, zehazki, psikologia, fisioterapia eta nutrizio saioak egiteko.
- *Aliantzen instalazioak.* Gure enpresaren aliatu diren gimnasio eta polikiroldegien instalazioak ere gure baliabide fisikoen artean sartuko ditugu, bezeroek hauek erabiliko dituztelako.
- *Body & Balancen sistema informatikoa.* Aipatutako guztiaz gain, gure enpresak webgune bat izango du. Bertan gure bezeroek harreman zuzena izateko aukera izango dute gure adituekin. Horretaz gain, gure enpresari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, webgunean aurkitzeko aukera izango dute etorkizuneko bezeroek.

Baliabide Intelektualak

- Gure enpresak ez ditu baliabide intelektualik, izan ere, ez dugu inolako markarik patentatu behar, ezta datu-baseen bilketarik egin behar gure zerbitzua promozionatzeko.

Giza baliabideak

Egoeraren arabera enpresako jabe/bazkide bakoitzak enpresaren ordezkaritza hartuko du, gure enpresa osatzen duten lau profilek dituzten gaitasunak kontuan hartuta. Aditu bakoitzaren ezagutza bereizgarria izan daitekeen lau egoera adibide izendatuko ditugu:

- Bezero berrien aurrean enpresaren nondik norakoak azaltzea nahi denean, *Body & Balance*-ko psikologoak hartuko du enpresaren ordezkaritza. Postu honetara heldu ahal izateko, aurretik, ikasketak izatea funtsezkoa izango denez, bere ezagutza eta gaitasunak kontuan hartuta, ondorioztatu dezakegu, bere profila

izango dela aproposena pertsonak izango dituzten jarrera eta erantzunak ezagutzeaz gain, bezero berriekin enpatia gehiago izateko. Ordezkarri honek aurkezpenak egiteko moduaren eta euskarri digital berrien inguruko formakuntza jaso beharko du.

- Kiroldegiekin eta gimnasio pribatuekin aliantzak egin behar ditugunean, ordea, ordezkarri bezala entrenatzaile pertsonala aukeratuko eta aurkeztuko genuke, izan ere, profil honetako pertsona bat izango delako bertako kontzeptu teknikoak hobeto ezagutuko dituen eta gure zerbitzua erakargarriagoa egingo duena. Honek ondorio bezala ekarriko du, kiroldegietako zuzendariaren eta ordezkarriaren arteko komunikazioa errazagoa izatea, eta gainera, gertutasun handiagokoa izatea.
- Bestalde, gure enpresa osatzen duten langile eta adituen artean ez dago administrazio eta kudeaketako ezagutza duen pertsonarik. Ondorioz, fisioterapiari adituak adibidez, formazioa jaso beharko du, hobeto ulertzeko eta, nolabait, enpresaren ekonomia eta administrazioan espezializatu eta kanpo zerbitzua eskeiniko duen erakundearekin zubi lanak egiteko. Horrela, esparru horretan espezializatzea lortuko zuen, enpresaren ekonomia aurrera eramateko. Ordezkarriaren beste lan bat, hauekin kontaktuan jartzea izango da eta enpresaren administrazioaren egunerokoa jarraitzea.
- Azken adituak, nutrizionistak, sare sozialen eta web gunearen ardura izango du edo hau ere kanpo zerbitzu batekin aurrera eramaten bada beraiekin zubi lanak.

Finantza baliabideak

- Enpresa aurrera eramateko erabiliko dugun kapitala bazkideek jarriko duten kapitala izango da. Behar izanez gero mailegu bat eskatuko genuke baina printzipioz helburua bazkideek jarritako kapitalarekin aurrera egitea da. Bestalde, enpresa handiagoa eta ezagunagoa egiten den heinean, agian aurreikus dezakegu mailegu bat eskatu beharra. Kasu horretan, pertsona gehiago hornitu behar baditugu, gure enpresa ere, beste toki batzuetara hedatu edo zabaldu beharko denez, horrek ere kostu handi bat dakar. Gainera, herriko udalak eskaintzen dituen diru-laguntzak kontuan hartuta, hasieran diru kopuru zehatz batekin hasiko ginateke.